



**1914 inguruko agintarixak**



**E**zagutuko dozue, biharbada, erretratu hau. Behin baño gehixagotan agertu da liburutan, baiña eztoгу sekula gure sail honetara ekarri. Lehenengo aldiz, guk dakigunez, Gipuzkuako Diputaziñuak 1914-15 aldera probintzia osoko herri-xekin kaleratu eben liburu luzezka eta haundi batian azaldu zan. Hemen ikusten dogun argazkixa Oñatiri dagokixon saillian dator eta balitke aurreko urtian atarata egotia.

Hain dotore agiri diran gizakume serixo eta kapeladun honeik Oñatiko agintarixak eta kargudunak dittuzue; kaletarrak batzuk, baiña baserritarrak be badira; kaletarren artian propietarixo, mediku, industrial txikin eta ofiziodunak dakogu; baserritarrak, berriz, maiorazko samarrak dira danak. Gaiñerakuak Arantzazuko fraile oñatiar famau bat, sekretarixua eta polizia-lanetan zihardueinak dira; orduan be klase askotakuak egozen herrizaiñen kofradixan: aguazillak, mikeletiak eta guardia zibillak.

Hona hemen euren izenak ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Antonio **Agirre**, aguazilla; Bernardo **Irizar**, kontzejala eta panaderua; Pedro **Mendizabal**, kontzejala, Zubillaga Garaikua; Leandro **Ortiz**, kontzejala eta ebanistia; Aitta Manuel **Umerez**, Arantzazuko sermolari ospetsua; Benito **Onraita**, kontzejala eta industrialia; Frantzisko **Apaolaza**, medikua eta Kasinoko presidentia; Juan **Sagastizabal**, kontzejala, Murgikoa Bixaingua; Fermin **Bengoa**, kontzejuko idazkarixa; Pedro **Oleaga**, aguazilla; eta Manuel **Altuna**, mikeletia.

**Jarritta:** Andres **Zubiagirre**, kontzejala, Larrañako Pullangua; Martzelino **Zelaia**, kontzejal sindikua, Zañartuko Upaingua; Frantzisko **Arrazola**, lehenengo teniente-alkatia, Santxolopetegiko Antuenekua; Esteban **Gomendio**, alkate jauna; Lorentzo **Enparantza**, bigarren teniente-alkatia; Mariando **Andrés**, Oñatiko guardia zibillen burua; eta Zipriano **Zufiria**, kontzejala eta enpresagizona. Fotografixan Antonio **Iñarra**, hirugarren teniente-alkatia, falta da.

J. E.  
Argazkixa Petri Ugartek itxi dosku. Eskerrik asko.



**KONTRATAK  
IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis.  
Tfnoa: 77 09 92  
ARRASATE

San Lorenzo, 39  
Tfnoa: 78 21 82  
OÑATI

**VRZELAI  
DENDÄ**

Kale Barria, 26  
OÑATI